



PERTSONAK

Denak berdinak, denak desberdinak

Unitate didaktikoa

LH 5. eta 6. maila



Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual,
trans eta intersexualen elkarteak
Asociación de gays, lesbianas, bisexuales,
trans e intersexuales del País Vasco



Eusko
Gazteruen
Kontseilua
Consejo de
la Juventud
de Euzkadi



GARAPENERAKO AGENZIA VASCO DE
LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



UNESCO ETXEA
CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNESCO ZENTROA



AURKIBIDEA

SARRERA

JARDUERAK

1. ¿NOR NAIZ NI?

1. Eranskina. Txartelak
2. Eranskina. Ikasleen fitxa

2. BALIOEN SEMAFOROA

3. Eranskina. Semaforoen kartelak
4. Eranskina. Eztabaidarako enuntziatuak eta galderak
5. Eranskina. Auetoebaluazio-fitxa

3. BESTE PERTSONA BATEN LARRUAZALEAN

6. Eranskina. Hautestontzien errotiluak
7. Eranskina. Paperezko txartelak
8. Eranskina. Taldeen kartelak
9. Eranskina. Musika
10. Eranskina. Ikasleen fitxa

4. HORMA IRUDI KOLEKTIBOA

11. Eranskina. Ikasleen fitxa

EBALUAZIOA



Egin **klik** tituluaren gainean aurrera egiteko

SARRERA

2019an, UNESCO Etxeak "Guztiok Batera" proiektua bultzatu zuen, AMUGE (Euskadiko Emakume Ijitoen Elkarte), Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK), Munduko Landagunea (WRF), Emakumeak Aniztasunean eta GEHITU (Euskal Herriko Lesbiana, Gay, Trans, Bisexual eta Intersexualen Elkarte) kide dituen lantalde batek osatua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) babesarekin. Talde honek ahulezia-egoeran dauden hainbat talderen gizarte-aldarrikapenak politika publikoetan txertatzeko lan egiten du, pertsona oro giza garapen iraunkorra, bidezkoa eta ekitatiboa lortzen laguntzeko, eskubide- eta genero-ikuspegia kontuan hartuz.

Horretarako, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda hartzen da erreferentziazat, paradigma hau lortzeko tresna eraginkorra, eraldatzailea eta unibertsala dela ulertuta.

Talde hau osatzen dugun erakundeok, hezkuntzan dugun ibilbidearen ondorioz, ezinbestekotzat jotzen dugu proiektuaren ideiak eta edukiak eskolara eramatea eta ikasgeletan zuzenean lantzea, haurtzarotik nerabegarora bitarteko aniztasunak balioetsiko dituen herritar kritikoak sortzen laguntzeko.

Horretarako, "Guztiok Batera. Hurbilketa bat 2030 agendatik EAEko kolektibo kaltetuetara" informean oinarrituta, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko irakasleei zuzendutako hezkuntza-proposamen hau sortu dugu eskubideak, inklusioa, dibertsitatea eta desberdintasunen murrizketaren gaiak lantzeko.

Gida hau 3 jarduera nagusik eta 2 ebaluazio-jarduerak osatzen dute, eta 3 orduko saio bakarrean edo ordubeteko 3 saiotan egin daitezke.

HELBURU OROKORRAK

- Pertsonen aniztasuna, balio demokratikoak eta giza eskubideak errespetatzea eta ulertzea.
- Eskolatik Agenda 2030en Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) lortzen laguntzea.

Jardueren eta kompetentzien laburpen-taula				
Oinarriko kompetentziak	1. jarduera Nor naiz ni?	2. jarduera Balioen semaforoa	3. jarduera Beste pertsona baten larruazalean	4. jarduera Horma irudi kolektiboa
Zeharkakoak				
Hitzez, hitzik gabe eta modu digifalean komunikatzeko kompetentzia				
Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia				
Elkarbizitzarako kompetentzia				
Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia				
Izaten ikasteko kompetentzia				
Diziplina barrukoak				
Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia				
Teknologiarako kompetentzia				
Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia				
Arterako kompetentzia				
Kompetentzia motorra				

NOR NAIZ NI?

Pertsonaiak asmatzeko jolas dibertigarri eta bizigarria da. Irudimena, ahozko komunikazioa eta parte-hartzaileen arteko keinu bidezko harremana aktibatzen dituen jarduera da.



Gaia

Pertsona dibertsitatea (kulturala, belaunaldikoa, generokoa, afektibo-sexuala, funtzionala...).



Modalitatea

Taldeka



Denbora

30 minutu.



Helburuak

- Taldean errespetuzko portaerarekin lan egitea, bai gainerako parte-hartzaileekiko, bai jolasean ordezkaturako pertsonetikiko.
- Pentsamenduak eta ideiak modu argi batean eta errespetuz adieraztea eta azaltzea.



Materiala (partaideko)

- Bekokirako zinta
- Txartelak (ikus 1. eranskina) alde biko zeloarekin
- Ikasleen fitxa (ikus 2. eranskina)
- Boligrafoa

Jolasa pertsonaia ezberdinak identifikatu eta asmatzean datza.

JOLASAREN AURRETIK

Jarduera egiteko materiala prestatu eta erdian talde bakoitzarentzako hurrengoak prest utzi behar dira: parte-hartzaile bakoitzarentzako alde biko zelo duen txartel bana, honen edukia ez ikusteko moduan jarrita.

1. eta 2. eranskinetan, pertsonaien txartelak eta ikasleen fitxa-eredua jasotzen dira, hurrenez hurren.

NOLA HASI JOLASTEN?

- Gehienez sei parte-hartzaileko taldeak egin behar dira.
- Talde bakoitza borobilean jarriko da.
- Ikasle bakoitzak txartela itsatsita duen zinta bana (ikus 1. eranskina) hartuko du, edukia ikusi gabe, eta kopetan jarriko du. Inork ez du ezer esan behar.

NOLA JOLASTEN DA?

- Talde bakoitzeko kideen artean, pertsonaia asmatzeko galderak egiten nor hasiko den erabakiko dute.
- Parte-hartzaile bakoitzak gehienez 5 galdera egin ditzake.
- Gainerakoek "BAI" edo "EZ" bakarrik erantzun dezakete.
- Parte-hartzaile bakoitzaren txanda bere 5 galderak egitean amaitzen da, eta zinta kopetatik kentzean, asmatu duen ala ez egiaztatzen du.
- Txanda erloju-orratzen noranzkoan pasatzen zaio hurrengo pertsonari, zirkulua osatu arte.

* Egoki iritzi gero, 5 galdera-txanda egin daitezke, eta ikasle bakoitzak galdera bakarra egin dezake txanda bakoitzeko.

ETA GERO?

Jolasa amaitzean, ikasle bakoitzak 2. eranskineko fitxa beteko du banaka.



ALTERNATIBA: Jarduera klase osoarekin borobil bakarria osatuz ere egin daiteke.

Gauzatze-denbora errespetatuz, zirkuluaren erdian 6 zinta 6 txartel jarriko ditugu, baita pilota bat ere.

Kasu honetan, boluntario bat eskatzen da jolasa hasteko. Honek zintetako bat eta pilota hartuko ditu. Beste aukera bat irakasleak pilota bota eta hartzen duena jolasarekin hastea izan daiteke. Pertsona honek bere txanda amaitzen duenean, pilota zirkuluko beste pertsona bati emango dio eta dinamika bera errepikatuko da txartel guztiak agortu arte.

I. ERANSKINA. Txartelak



Informazioa

Jarriaian agertzen diren fitxak adibide baino ez dira. Irakasleak ikasleentzat interesgarriak izan daitezkeen pertsonaiak aukeratu ditzake.

Aukeraketa egiteko, kultura, kirol, politika... arloko pertsonaia publikoak aukeratzea gomendatzen da, baita aniztasunaren, berdintasunaren, aurreiritzi sozialaren eta abarren ezaugarriren batengatik nabarmentzeko modukoak izatea. Txartelak hautatutako pertsonaren argazkia eta izena izatea komeni da.

ALTERNATIBA. Pertsonai anonimoak ere erabil daitezke, adibidez:

- Mutil bat gimnasia erritmikoa egiten
 - Pertsona txiroa
- Emakume bat kalean eskean
 - Neska ijito bat eskolan
- Ume bat gurgildun aukian saskibaloian jolasten
 - Gizon zahar bat
 - Emakume zahar bat
 - Pertsona itsua
- Emakume bat traktorean
- Down-en syndromea duen pertsona
 - Burka duen emakumea
 - Exekutibo bat
 - Zientzialari bat
 - Astronauta bat
 - Etab.

Kasu honetan, marrazkiak eta abar erabil daitezke.



©CC BY-SA 3.0 GFDL

IÑAKI WILLIAMS

- Athleticceko futbolaria
- Gurasoek Ghanatik (Afrika) emigratu behar izan zuten



©Simon David/FID

MALALA YOUSAFZAI

- Neska eta emakumeen hezkuntzaren alde borrokatzen den ekintzailea
- Pakistánen jaio zen



©Jon Banderer

EDURNE PASABAN

- Munduko lehen emakumea 14 zortzimilakoak igotzen (8000 metrotik gorako mendiak)

1. ERANSKINA. Txartelak

✂



"AITOR" Endika Zamalloa

- Down sindromea duen lehen aktorea GOAZEN telesailean parte hartzen

©erbeu

✂



ERIKA VAZQUEZ

- Athleticen futbolaria
- Athleticen goleatzaile onena

©athletic-club-eu

✂



MAIALEN LUJANBIO

- Bertsolaria eta idazlea
- Bertsolari txapelketa irabazi duen lehen emakumea

©Dani Blanco

1. ERANSKINA. Txartelak



©Anders Hellberg

GRETA THUNBERG

- Aldaketa klimatikoaren aurkako ekintzailea
- Asperger sindromea du

✕



©MiquelAranCS

JEDET

- Aktorea eta abeslaria
- LGBTQ kolektiboko kidea da.

✕



©Pere Cobe

FEDERICO GARCIA LORCA

- Poeta
- Homosexuala eta sozialista izateagatik fusilatua

2. ERANSKINA. Ikasleen fitxa



Informazioa

Galdera errazak dituen banakako fitxa, norberaren pertsonaia baliatuz gizartean dauden aniztasunei buruz hausnartzeko.



Nor naiz ni?

Zure izena:

Pertsonaia:

ARIKETA. Erantzun galdera hauk erantzunak arrazoituz.

- 1 Asmatu duzu zein den zure pertsonaia?
- 2 Kostatu zaizu galderak pentsatu edo egitea?
- 3 Zer pentsatu edo sentitu duzu zure pertsonaia zein den jakin duzunean?
- 4 Orain badakizula nor den...
 - ... zer ezaugarri ditu zure pertsonaiak?
 - ... pertsona horri buruzko zerbait positiboa nabarmendu.
 - ... zertan identifikatzen zara pertsona horrekin?

Ikasleei beren gizarte-balioak ezagutzeko aukera emango dieten baieztapen moralei buruzko gogoeta-dinamika.



Gaia

Aurreiritziak



Modalitatea

Taldeka



Denbora

30 minutu.



Helburuak

- Gure bizitza arautzen duten gizarte-balioei buruz hausnartzea.
- Jarrera erakitzaile, kritiko eta tolerantarekin parte hartzea.
- Pertsonen giza eskubideak errespetatzen dituzten eta ez dituzten portaerak bereiztea.
- Bidegabekeriak eta diskriminazioak eragindako gatazka-egoerak identifikatzea eta aztertzea.



Materiala

- Semaforo kartelak (ikus 3. eranskina)
- Eztabaidarako enuntziatuak eta galderak (ikus 4. eranskina)
 - Autoebaluazio-fitxa (Ikus 5. eranskina)

Aukerakoa:

- Zinta itsasgarria, lurrean bi eremuen muga markatzeko.
- Arbela eta klariona edo arbel-errotuladorea (esaldi bakoitza eta/edo ondorioak idazteko)

JOLASAREN AURRETIK

Gela hiru zatitan banatu: alde, kontra eta axolagabea. Jolasa espazio zabal batean egitea proposatzen da, parte-hartzaileak eroso mugitu ahal izateko eta kokapenak hobeto ikusi ahal izateko. Lurrean lerro bat jarri daiteke zinta itsasgarriarekin.

3. eranskinean, zonaldeak girotzeko semaforoaren kartelak jasotzen dira.

NOLA JOLASTEN DA?

Irakasleak hainbat enuntziatu irakurriko ditu (ikus 4. eranskina), eta horietako bakoitzean:


- Ikasleek beren jarrera zein den esan beharko dute, "alde", "kontra" edo "axolagabe" dauden adieraziz.
- Erantzunaren arabera, dagokion gelaren aldean kokatuko dira.
- Norbaitek zein iritzi duen ez dakienean edo axolagabea iruditzen zaionean erdian jarri daiteke. Kasu horietan, irakasleak zonalde bat aukeratzera eta bere ideiak defendatzeko argudioak aurkitzera animatuko du.
- Enuntziatu bakoitzaren ondoren, ikasleek non kokatuko diren argi dutenean, talde bakoitzak bere hautua argudiatuko du, eta gainerakoek isilik entzungo dute.
- Argudiaketan zehar, eremuz aldatzea posible da. Gomendagarria da hasieran aukera hori azpimarratzea, ikasleek gogoan izan dezaten garrantzitsuak iruditzen zaizkigun beste argudio batzuk entzun ondoren, gure iritzia guztiz edo partzialki alda dezakegula.

ETA GERO?

Amaieran, eztabaida txiki bat egingo da, ikasleek gertatutakoaz hausnartzeko eta ondorioak ateratzeko. Ondorioak arbelean idatziko dira. Ondoren, banakako autoebaluazio-fitxa beteko dute (ikus 5. eranskina).

NOTA:

4. eranskinean esaldi bakoitzari buruzko informazioa jasotzen da, bai eta eztabaida zuzentzeko balizko gai batzuk ere.



3. ERANSKINA. Semaforoen kartelak




Informazioa

Ikasgela zonifikatzeko orduan atrezzo gisa erabiltzeko aukera ematen duten kartelak.



3. ERANSKINA. Semaforoan kartelak





4. ERANSKINA: Eztabaidarako enuntziatuak eta galderak

i

Informazioa

Enuntziatu hauek orientagarriak dira, ikasleentzat interesgarriak izan daitezkeen egungo gaiak lantzeko pentsatuak. Hala ere, irakasleak nahi bezala molda ditzake edukiak ikasgelaren ezaugarrietara egokitzeko.

Halaber, landu beharreko gaiari buruzko informazioa eta eztabaida hasteko, zuzentzeko edo aberasteko hainbat galdera jasotzen dituzten estekak erantsi dira.

- 1 **Beti darama maskara sudur azpian. Arriskuan jartzen gaizu!** ¹i ²i
 ? Maskara ondo erabiltzen dugu? Modu egokian erabiltzen dugu beti?
- 2 **Anderrek hemendik aurrera Andere deitzeko esan digu. Zelango eromena!** ³i ⁴i
 ? Zer gertatzen da neska edo mutil gisa ikusten dugun pertsona bat horrela sentitzen ez denean?
- 3 **Bere familiak ez du paperik, ziur gaizkileak direla!** ⁵i ⁶i ⁷i
 ? Zer esan nahi du paperik ez izateak? Paperik ez izateak gaizkilea izatea esan nahi du?
- 4 **Mirenek ikasturtea errepikatu du eta nik ez. Oso pertsona azkarra naiz!** ⁸i ⁹i
 ? Pertsona guztiok modu berean ikasten dugu? Ba al dakigu zergatik errepikatu duen ikasturtea? Arrazoi pertsonalek ez al dizuete eragiten ikasteko orduan?
- 5 **Nire ahizpa zaharrenak beti egiten du bere mutil-lagunak esaten duena.** ¹⁰i ¹¹i
 ? Nola imajinatzen duzue harreman osasuntsua izatea lagunaren artean, familian, bikotekidearekin...? Zuen ustez, harreman guztiek berdinak izan behar dute? Bikote-harreman bat pertsona bat bestearekiko errespetuan edo mendetasunean oinarritu behar da?
- 6 **Jon Senegaletik ekarri zuten, zergatik maite dute bere semea balitz bezala?** ¹²i
 ? Zurekin bizi den pertsona ezin da zure familiaren parte izan?
- 7 **Xan Bilbon jaio zen, baina ez da hemengoa txinatar-erako begiak dituelako.** ¹³i
 ? Ezaugarri fisikoek zehazten dute zein zaren edo zein den zure jatorria? Pertsonak ezin dute aukeratu nongoak diren edo non bizi diren? Noiz da pertsona bat leku batekoa?
- 8 **Amaiak pizzak eta txokolatinak ekartzen ditu beti hamaitaketarako. A ze nolako muturra duen!** ¹⁴i
 ? Zer jan behar dugu osasun ona izateko? Nola eragin diezaioke zabor-janariak gure osasunari? Eta kirolak?

- 1 Enuntziatua
- ? Galdera
- i Informazioa

NOTA:

Gogoratu adibideak hipotetikoak direla eta esaldi bakoitzaren aldeko edo kontrako argudioek ez dituztela gelako gainerako pertsonak epaitu behar. Benetako adibideak jarri nahi badira, norberak ondo edo gaizki egiten duenaz hitz egin behar da, eta ez ondoko pertsonak ondo/gaizki egiten duenaz.

**Informazioa**

Autoebaluazioko banakako ariketa, eztabaidaren ondoren egiteko. Ikasleek aurretik zituzten aurreiritziei eta orain dituztenen gainean hausnartu beharko dute.

Balioen semaforoa

Izena:

LEHEN USTE NUEN...

ORAIN PENTSATZEN DUT...

BESTE PERTSONA BATEN LARRUAZALEAN

Desberdinak diren pertsonak ezagutu eta haiekin hitz egiterakon, amankomunean gauza asko ditugula ikus dezakegu.



Gaia

Pertsonen aniztasuna



Modalitatea

Taldeka



Denbora

60 minutu.



Helburuak

- Gizarte- eta kultura-gertaerak, -kontzeptuak eta -prozesuak interpretatzea, adieraztea eta irudikatzea.
- Bidegabekeriak eta diskriminazioak eragindako egoera gatazkatsuak identifikatzea eta aztertzea.
- Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen-baliabideak ezagutzea.
- Lankidetzaren eta lan-jardueretan parte hartzea.

Materiaia

- 3 hautestontzi, kutxa edo ontzi errotulatu (ikus 6. eranskina)
- Paperezko orriak (ikus 7. eranskina)
 - Taldeen kartelak (ikus 8. eranskina).
 - Musika eta bozgorailua duen aparatua (ikus 9. eranskina)
 - Ikasleen fitxa (ikus 10. eranskina)
- Hainbat osagarri: txapela, zapia, bekokiko izerdiarentzako zinta, ilerako apaingarriak (urkilak, diademak, koleterokak), maletinak, motxilak, tximeleta-begizta, eguzkitako betaurrekoak, ileordeak, eskularruak, gerrikoak, jostailuak, erraketak, skatea, zedulak, gurpila, makuluak, bastoiak... baita arropa ere (jantzi-jakak, soinekoak kamisetak).
- Boligrafoak

Jarduera honetan, ikasle bakoitzak bera izateari utziko dio beste pertsona baten larruazalean jartzeko.

JOLASA BAINO LEHEN

Nerabe eta gazteentzat erreferentziazkoa izan ahal den espazio bat musikaz girotu, adibidez: eskolako jolastokia edo gimnasioa. Hautestontziak prestatu, bakoitzari dagokion txartela jarri, edukia ikusi gabe (ikus 6. eranskina).

NOLA JOLASTEN DA?

- . Ikasle bakoitzak bi txartel hartuko ditu: bat 1. hautestontziko (antzeztuko duen pertsona) eta bestea 2. hautestontziko (ezaugarri pertsonalak).
- . 10 minututan ikasle bakoitzak bere pertsonaiarekin zerikusia duten osagarriak hartu beharko ditu, isilean eta inorekin hitz egin gabe. Tokia letrarik gabeko musika suabearekin girotuko da (ikus 9. eranskina).
- . Bitartean, taldeen kartelak (ikus 8. eranskina) aukeratutako espazioetan jarri beharko dira.
- . Ikasle bakoitzak 3. hautestontziko orri bat aukeratu beharko du berriro, zein talderengana jo jakiteko. Horrela, elkarrekintza-taldeak sortuko dira.
- . Talde desberdinetan, pertsonaia bakoitza gainerakoei aurkeztuko zaie pertsonaien arteko lankidetzaren harremanak edo harreman pertsonalak ezartzen dituen istorio bat sortzeko.
- . Hurrengo 30 minutuetan: talde bakoitzak bere istorioa kontatu edo antzeztuko du.

ETA GERO?



Jolasa amaitzean, ikasle bakoitzak jarduerari buruzko fitxa bat beteko du (ikus 10. eranskina).

ALTERNATIBAK:

1. ALTERNATIBA: Ikasleei egun batzuk eman jarduera egin aurretik pertsonaiaren karakterizazioa etxean presta dezaten. Horretarako, ikasgelan 1. eta 2. hautestontzietako boto-paperak hartu (edo ausaz banatu).
2. ALTERNATIBA: Hiru txartelak aldeztu aurretik ausaz banatu, talde bakoitzak bere historia eskolaz kanpo prestatu ahal izateko. Gainerako jarduera gelan burutuko da.
3. ALTERNATIBA: Pertsonaia berberak talde guztietan banatu, istorioak alderatu ahal izateko.

**Informazioa:**

Hautestontziak sortzeko jarri beharreko errotuluak.

1 HAUTESTONTZIA**2 HAUTESTONTZIA****3 HAUTESTONTZIA**

7. ERANSKINA. Paperezko txartelak

**Informazioa**

Eranskin honetan hautestontzi bakoitzean ebaki, tolestu eta sartzeko txartelen eredu bat jasotzen da. Kontuan zain ikasle bakoitzak zein taldetara jo behar

duen adierazten duen 3. hautestontziko txartelak, ikasle kopuruaren arabera inprimatu behar direla.

I. HAUTESTONTZIA**Ángela**

80 urte

Michael

33 urte

Naroa

15 urte

Nasredding

40 urte

Rocio

12 urte

Raúl

21 urte

Ander

4 urte

Laiene

49 urte

Alex

60 urte

Mikel

37 urte

Niko

6 urte

Nerea

9 urte

Fernando

44 urte

Nouh

70 urte

Luciana

54 urte

7. ERANSKINA: Paperezko txartelak

Li

25 urte

Peio

19 urte

Ane

72 urte

Borja

20 urte

Nora

41 urte

Emelda

65 urte

Maidier

35 urte

Ziortza

62 urte

Martin

5 urte

Ismael

56 urte

Mohamed

28 urte

2. HAUTESTONTZIA

<p>Hiru hizkuntza hitz egiten ditu: euskara, gaztelania eta frantsesa. Hainbat herrialdetan ibili da.</p>	<p>Rap musika asko gustatzen zaio, errimak ere egiten ditu, baita abestiak inprobisatu ere. Arropa zabalekin janztea eta txapela eramatea gustatzen zaio.</p>	<p>Auto istripu batek bere bizitza markatu du. Kirola egiteak sasoian egoten laguntzen dio, baita ondo sentitzen ere.</p>
<p>Asko gustatzen zaio marraztea eta beti darama koaderno bat gainean, arreta deitzen dioten gauzak margotzeko edota ez aspertzeko.</p>	<p>Lorategia duen etxe handi batean bizi da. Loreak asko gustatzen zaizkio.</p>	<p>Espaziora bidaiatzea da bere ametsa, baina ezingo luke ordaindu.</p>
<p>Youtuberra da eta bere bizitza pertsonala kontatzen duten bideo dibertigarriak egiten ditu.</p>	<p>Filmak asko gustatzen zaizkio. Disney-renak dira gustokoenak.</p>	<p>Gitarra, trikitixa eta bereziki pianoa jotzen ditu. Bere amets nagusia orkestra sinfoniko batean pianista gisa parte hartzea da.</p>
<p>Egun osoa dantzan ematen du, bere ametsa Got Talent lehiaketa irabaztea da.</p>	<p>Jatea eta janaria prestatzea asko gustatzen zaio. Postrea da gehien gustatzen zaiona.</p>	<p>Hainbat maskota ditu etxean: 3 katu eta 2 txakur. Animaliairen bat arriskuan ikusten duen bakoitzean erreskatatu eta etxera eramaten du zaintzeko.</p>
<p>Argazkiak egitea gustatzen zaio eta oso ondo posatzen du. Argazki oso politak ditu munduko hainbat lekutan.</p>	<p>Eskalatzea gustatzen zaio, bulder baten barruan zein mendian.</p>	<p>Komikien frikia da. Bere familiaren baserrian txerriak, oiloak eta behiak ditu, baita ortu bat eta fruta-arbola batzuk ere.</p>
<p>Asko gustatzen zaio hondartzara joan eta bainua hartzea, baina udan egun batzuetan bakarrik joan daiteke familiarekin.</p>	<p>Jakinmin handia duen pertsona da eta zientziak liluratzen du.</p>	<p>Mozorrotzea maite du, urteko garairik gogokoena inauterriak dira. Ahal duen bakoitzean, ezpainak eta azazkalak margotzen ditu.</p>

7. ERANSKINA. Paperezko txartelak

<p>Modak txoratu egiten du. Beti kolore ikusgarri eta alaiekin janzten da.</p>	<p>Bere gurasoetako batengandik jaso du auto zaharrekiko eta gauzak konpontzeko grina.</p>	<p>Bere aita autoen mekanikaria da eta bere denbora librean auto zaharrak konpondu ohi ditu. Ahal duen guztietan laguntzen du eta edozer konpontzen daki.</p>
<p>Oso ondo jokatzeko du bideojokoetan eta ingelesez hitz egiten du.</p>	<p>Asko gustatzen zaio orrazkera desberdinak egitea. Erraztasun handia du inguruko jendeak eskatzen diena egiten.</p>	<p>Baloi bat oparitu ziotenetik ez du askatu. Ahal duen guztietan erabiltzen du (saskibaloian, eskubaloian... joka dezake). Gauza berriak ikastea ere gustatzen zaio.</p>
<p>Pertsona abenturazalea da. Gauza eta leku berriak aurkitzea gustatzen zaio.</p>	<p>Zeinu hizkuntza ikasten ari da. Hasieran zaila egiten zitzaion, baina orain oso erraz egiten du.</p>	

3. HAUTESTONTZIA

1 Taldea	2 Taldea	3 Taldea
4 Taldea	5 Taldea	6 Taldea

**Informazioa**

Lekua zonifikatzeko eta taldeak antolatzeko kartelak.

**1 TALDEA****2 TALDEA****3 TALDEA**



4 TALDEA

5 TALDEA



6 TALDEA

**Informazioa**

Mp3 formatuan deskargatzeko audioak dira, behin jolasaren dinamika azalduta jartzeko.



Osagarriak aukeratun dituzten bitartean ipintzeko.



Antzeztun duten bitartean ipintzeko.

**Informazioa**

Banakako fitxa, galdera errazekin, beste pertsona baten larruazalean jartzeko erronkari buruz hausnartzeko.

Beste pertsona baten larruazalean. Ikasleen fitxa.

Izena:

Pertsonaiaren ezaugarriak:

ARIKETA. Erantzun galdera hauei, erantzunak arrazoituz.

- 1 Zer osagarri aukeratu dituzu zure pertsonaia interpretatzeko? Zergatik?
- 2 Zer moduz joan da beste pertsonaia batzuekin harremanak izateko unea? Nola tratatu zaituzte eta nola tratatu dituzu besteak?
- 3 Identifikatuta sentitzen zara zure pertsoniarekin?
- 4 Atentziora eman dizun zerbait ikusi duzu?
- 5 Gustura sentitu zara jolasean?

Mural kolektiboa oso baliabide moldagarria da unitate didaktikoaren aurreko jardueretan egindako lana ikusarazteko. Irudiak eta testua erabiltzeko aukera ematen du, bai eta hiru dimentsioko elementuak erabiltzeko aukera ere, ikasleek hala nahi badute. Ikaslea, gainera, lanketan aktiboki inplikatzeko denez, bere ikaskuntza prozesua modu ludiko eta sortzailean eraikitzen du.



Gaia

Pertsonak



Modalitatea

Taldean



Denbora

60 minutu.



Helburuak

- Ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzea.
- Norberaren eta besteen ekarpenak baloratzea.
- Arteak ideiak, sentimenduak eta bizipenak komunikatzeko eta adierazteko eskaintzen dituen aukerak ulertzea.
- Pentsamendu-, irudimen- eta sormen-trebetasunak erabiltzea norberaren arte-sorkuntzak aberasteko.



Materiala

- Hainbat osagarri: paper-biribilki zuria edo marroia muralerako (80-120 cm arteko zabalera), paper-orriak, guraizeak, koloretako arkatzak, errotuladoreak, akuarelak, koloretako kartulinak, barra-itsagarriak eta orratzak.
- Ikasleen fitxa (ikus 9. eranskina)

Jarduera honekin unitate didaktikoari amaiera ematen zaio, eta ebaluazio gisa balio du.

JOLASA BAINO LEHEN

Mahai batean erabili beharreko materiala prestatu (kartulinak, paperak, errotuladoreak) behar da, ikasleek behar dutena har dezaten. Interneten irudiak bilatu behar izanez gero, ordenagailuak eskura izatea gomendatzen da, eta freepik edo pixabay bezalako orrialde libreetan irudiak bilatzea.


“Muralerako” papera nahi den tamainan moztuta eduki (gutxienez 1,5 m luze izatea gomendatzen da) eta, ahal bada, gainazal batean zabaldua, ekarpenak errazago gehitzeko.

NOLA JOLASTEN DA?

- Ikasle bakoitzak ikasi duenaren gainean zerbait pentsatu eta adierazi beharko du: marrazki, esaldi, hitz, prentsan edo Interneteko albiste... baten bitartez.
- Behin amaitutakoan, norberaren hausnarketa gainontzeko ikasleei azalduko die ikasle bakoitzak.
- Guztien artean, muralaren azken banaketa erabakiko da, ekarpen guztiak kontuan hartuta. Zuzenean itsatsi daitezke, moztu, esaldiak edo hitzak koloreekin zuzenean horma-irudian idatzi... Horma-irudiari zein izenburu jarri ere erabaki behar da.
- Amaitu ondoren, horma-irudia eskolako pasabide batean jarriko da, handik igarotzen diren pertsonak ikus dezaten (ikasleak, irakasleak, zaindariak...).

ETA GERO?

Jolasa amaitzean, ikasle bakoitzak hausnarketa-fitxa bat beteko du (ikus 9. eranskina).





Informazioa

Jarduera amaitzean, parte-hartzaile guztiek banaka bete beharko dute fitxa hau. Orain arte landu duten

guztiaz hausnartzeko galdera errazak dira. Irakasleen heteroebaluaziorako ere lagungarria izango da.



Irudi kolektiboa

Izena:

1 Zer ekarpen egin duzu muralean? Zergatik?

2 Bete ezazu ondorengo taula:

Lehen uste nuen...	Orain pentsatzen dut...

Heteroebaluazioa unitate didaktikoa ebaluatzeko tresna gisa proposatzen da, ondoren aurkezten den errubrikaren bidez.



Ebaluazioa. Irakasleentzako fitxa.

Ikaslearen izena:

	Bai	Ez	Oharrak
Pertsonen aniztasuna errespetatzen du, bakoitzak gure nortasuna dugula onartuz.			
Aktiboki parte hartu du jardueretan.			
Landutako azalpen eta gaiekiko interesa erakutsi du.			
Begirunez eta arretaz entzuten ditu dinamizatzaillearen eta kideen azalpenak eta iritziak.			
Jarduerak egiterakoan jarrera positiboa eta parte-hartzailea erakutsi du.			